

noaua



UDAJOLASEN IZENA EMATEKO EPEA ASTE HONETAN IREKIKO DA

Usurbilgo 4-12 urte bitarteko haur eta gaztetxoek zuzendutako udaleku irekia uztailaren 6tik 30era egingo da / 12 or.

NOAUA

Jende ugari batu zen euskararen aldeko lasterketan

Korrika Txikik eta Korrikak berak utzitako arrastoa laburbildu dugu erreportaje grafiko batean / 13/16 or.



NOAUA

Errenta aitortpena euskaraz tramitatzeko deia luzatu dute / 07




NOAUA

Meltxor Iza nagusitu zen Ibai-Ondo Backyard erronkaren bigarren edizioan / 17



NOAUA

Asteburu honetan Garagardo Azoka, Usurbil KE-ren eskutik / 22



NOAUA

'Filipa Balbina' klown ikuskizuna, larunbat honetan Emakumeen Etxean / 26



Eslovenia

IRTEERA 2026ko iraila

NOAUA
BIDAIAK

Noaak gidatutako talde bidaiak. Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria




USURBIL
OPTIKA

2x1

PROGRESIBO,
URRUTIKO
ETA GERTUKO
BIGARREN
LENTE PAREA
DOAN!

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com

NOAUA! KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEEN BATZAR NAGUSIA

APIRILAK 21, ASTEARTEA - POTXOENEAN

1. deialdia **17.30** / 2. deialdia **18.00**

GAI-ZERRENDA:

- 1) 2025eko memoria eta balantze ekonomikoa
- 2) 2026ko egitasmoak eta aurrekontuak
- 3) Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena
- 4) Galdera erantzunak



noaa

"Udazkenerako kiroldegia erabat ireki nahiko genuke"

Igarotako jaiegunon ondotik konpontzen hastekoak dira iazko abuztuko suteak kalte-tutako Oiardo kiroldegiko eremua. Bost bat hilabete beharko dituzte eraberriketa lanotarako. Eraberrikuntza lanok esleitu dizkie Udalak Igez Eraikuntzak SL enpresakoei, 641.396,50 euroan. Egingdako proposamenak eskatutako baldintza guztiak betetzen dituzenez, horri esleitu zaizkio lanak.

Udazkenerako ireki nahi da Udalak 641.000 euroan baloratu zituen kalteak. Obrak egin ahal izateko prozedura ahalik eta gehien azkartzeko, eta horretarako gaitasun ekonomikoa zeukalako, 641.000 euroko kreditu aldaketa onartu zen urriko osoko bilkuran. Udalak aditzera eman duenez, "aseguru etxeak oraindik ez du ofizialki jakinarazi sutearen kalteak zenbateraino estaliko dituen".



Aurreikusitako baina gehiago luzatu da lanak esleitzeko prozesua.

Garbigune mugikorra, herri erdigunean

Kalezarretik Mikel Laboa plazara lekuz aldatuko du apirilaren 16an garbigune mugikorra, eta bertan izango du Udalak hilaren 23an Aginagara eraman arte. Bi aste-rokoa izan ohi den errefusaren hurrengo bilketa eguna, bestalde, apirilaren 26a izango da.

1954. urtekoak maiatzaren 1ean elkartuko dira

1954. urtean jaiotakoak maiatzaren 1ean bilduko dira, eguerdiko 14:00etan, Atxega jatetxean. Izen-ematea hala ere, apirilaren 20ra bitarte egongo da zabalik. Bi telefono zenbaki hauetako batera deitu behar da horretarako: Joxe Leon: 688 62 06 48. Arantzazu: 650 02 87 58.

1968koak Atxegan batuko dira, apirilaren 25ean

Udaberrian kinto bazkari ugari ospatu ohi dira. 1968an jaiotakoak apirilaren 25ean elkartuko dira, Atxega jauregian. Ordaindu beharrekoa, 50 euro, eta prezioaren barne daude bazkaria eta ondorengo Djsaioa. "Jarri kontaktuan Bego edo Anarekin, edo 1968ko whatsapppean dagoen edozeinekin".

"63an jaiotakoak bazkaria egingo dugu elkarrekin"

"63koa bazara eta etorri nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan: (667296328, Jone) edo (690346480, Pili). Animate!"

- Noiz: Maiatzaren 16an, larunbata, eguerdiko 14:00etan.
- Non: Atxega jauregian.
- Izena emateko azken eguna: Apirilaren 24a.



Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Ugaitz Agirre.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Kudeatzailea:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio Batzardea:
Aritz Lasarte, Asier Gonzalez de San Pedro, Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Ane Ibargoien.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzalea:
Iban Maribalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 3.050 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

IRITZIA



AINHOA AZPIROZ

Estutu, baina ito gabe

Badirudi zoritxarrez ohikoa bihurtzen ari zaigula munduan gerra bat amaitu gabe beste bat hastea, eta haren ondorioak mundu osoan igartzen dira. Azkenekoa Iran eta AEB-Israelen artekoa. Kasuhonetan, eraitsitako etxez eta zauritutako eta hildako pertsoez baino gehiago hitz egin da komunikabideetan suntsitutako lantegiez, petrolioaren prezioaz eta Ormuz pasabideaz.

Eta igarri ere, guztion poltsikoetan igarri da. Gerra hasi aurretik gasolina 1,478 euro ordaintzen genuen batez beste. Duela gutxi 1,796 euro tara igota egon da eta une honetan (15 egunetako su-etena iragarri ondoren) 1,57 eurotan dago. Gasolioaren kasuan, gerra hasi aurretik 1,43 eurotako zen litroaren batez bestekoa. 1,94 euroko prezioa eduki du egun batzuetan eta orain 1,90 eurotan dago.

Europako beste herrialde batzuetan, prezioak altuagoak dira: Herbeheretan gasolina 2,33 euro/l eta gasolioa 2,46 euro/l; Alemanian gasolina 2,2 euro/l eta gasolioa 2,5 euro/l; Irlandan, Danimarkan eta Finlandian gasolina 2,45 euro/l igo da. Irlandan lau egunez errepi-deak eta energia azpiegiturak blokeatu dituzte erregaien prezioen igoera salatzeke.

Prezio horietan, petrolio gordinaren edo Brent upelaren



Gasolioak 1,94 euroko prezioa eduki du egun batzuetan eta orain 1,90 eurotan dago.

prezioaz gain, eragina dute zer-gekek, findegiek, garraioak, merkatu-eskariak eta geopolitikak.

Edonola ere, igo eta jaitsi, igo eta jaitsi horretan, zenbat igo dezakete gasolinaren eta gasolioaren prezioa? Litroa 4 euro ordaintzera iritsi al gaitzke? Edo 5 euro? Posible ote da ordaindu ezin dugulako autorik hartu gabe geratzea?

Eta hainbeste igoko balitz, garraiolariekin zer gertatuko litzateke? Eta haiek garraiatzen dituzten produktuekin? Jatekoa, edatekoa, janztekoa, erremintak, laneko materiala... Horien prezioak izugarri igoko balira eta ezingo bagenitu erosi?

Zer gertatuko litzateke munduko salerosketekin? Eta kontsumo arekin? Kontsumitu ezinik geratuko bagina, merkaturuan eragin nabarmena izango luke eta agian ez da komenigarriena kapitalismoarentzat edo petrolio-konpainientzat. Green-

peace-ren arabera, AEBk eta Israelek Iran eraso zutenetik Europar Batasuneko petrolio-konpainiek egunean 81,4 miloi euro estra irabazi dituzte, denek batera 2.500 milioi eurotako irabaziak martxoan.

Irabazi horiek posible dira, prezioak igo arren erosten jarraitzen dugulako. Nago ez ote dagoen dena neurtuta... estu hartu bai baina ito gabe. Itoz gero, ezin baita gastatu.

**"LITROA 5 EURO
ORDAINTZERA IRITSI
AL GAITZKE?
POSIBLE OTE DA
ORDAINDU EZIN
DUGULAKO AUTORIK
HARTU GABE
GERATZEA?"**

"Goazen kalera", herri erdigunean

Udalak antolatutako hurrengo ibilaldi osasuntsua, herri erdigunean barrena egingo da, hilaren 21ean. Ohi bezala, goizeko 10:30etan abiatuko da paseoa frontoitik. Herritar orok parte har dezake aurrez izena eman beharrik gabe. Amaieran, Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleek sukaldaturiko ha-maiketako dastatu ahalko dute parte hartzaileek.

14. Dantza Egunaren atarian

Dantza batean amaituko dugu hilabete hau, Orbeldikoek prestaturiko jaialdiarekin. Hemen duzue, Dantza Egunerako osatu duten egitaraua:

Apirilak 25, larunbata

- 7. Dantzari Txiki. Talde gonbidatuak: Gure Txeru (Getaria), Jalgi (Zarautz), Murixka (Lezo).
- 11:30 Kalejira udaletxetik abiatuta.
- 13:00 Ekitaldi nagusia frontoian.
- 14:30 Herri bazkaria Askatasuna plazan. Otordurako txartelak Artzabalen eta Lizardin salgai, apirilaren 21era arte.
- 17:00 Harkaitz Allur eta Maddalen Arzallus trikitilariak Artzabalen.
- 22:00 "Aitaren Gutuna" ikuskizuna frontoian.
- Ondoren, Iratzar erromeria Mikel Laboa plazan.
- Antolatzailea: Orbeldi D. T.
- Laguntzailea: Udala.



Unai Gaztelumendiren komiki-tira, TOKIKOMeko hainbat hedabideren eskutik.

Bisita gidatu ugari iragarri dira datozen asteetarako

650 Usurbil Bizi herri egitasmoak bestelako turismo eskaintza sustatzen segiko du udaberri honetan.

Usurbilgo kaleetako kultur sorkuntza, Salbatore elizako ondarea, sagardoaren kultura, tokiko zaintza nahiz hondakinen kudeaketa ereduak sakonago ezagutzea ahalbidetuko dute hitzorduok. Bada, ordea, nobedaderik.

'Polen' erakusketara bisitan

Izan ere, batetik, Jokin Eizagirre "Txitxo" herrikideak bere sorkuntza lanekin, tamaina handiko oleo-pinturekin eta eskulturekin martxoaren 20az geroztik apirilaren 19ra arte Sutegin zabalik duen "Polen" izeneko erakusketara ere bi bisita gidatu antolatu dituzte; horietako bat Museo Irekiarekin konbinaturikoa. Bestea, Txitxok berak komentaturiko bisita izango da.

Erakusketaren ardatza naturan oinarritzen da: polena hedatzen den bezala, kolorea eta

materia espazioan zehar zabalitzen dira, bizitzaren eta sorkuntzaren hasiera irudikatuz.

Erakusketa apirilaren 20ra arte izango da zabalik Sutegin, ordu honetan:

- Astelehenetik ostiralera: 17:00-20:00.
- Larunbat eta igandeetan: 11:30-14:00/17:30-20:00.

Bertso ibilaldia

Bada bestelako nobedaderik epe laburrean. Alkartasuna Kooperatibakoekin batera, bertso-ibilaldia antolatu dute Aginagako eta Txokoaldeko sagastietan barrena, Jakoba Errekondo, Maialen Lujanbio zein Andoni Egañarekin.

Bisita gidatuak

Apirilak 17, ostirala

- 18:30-19:30 Bisita komentatua 'Polen' erakusketan, Jokin Eizagirre Txitxo-rekin.



Apirilaren 17an, 'Polen' erakusketa hobeto ezagutzeko aukera izango da.

Apirilak 19, igandea

11:00-12:15 Bisita gidatu konbinatua: Museo Irekia eta Sutegiko 'Polen' erakusketa.

Apirilak 22, asteazkena

10:00-11:00 Zero Zabor bisita gidatua.

Apirilak 24, ostirala

10:00-11:30 Zaintzaren Usurbil bisita gidatua.

Apirilak 25, larunbata

11:00-12:45 Bisita gidatu konbinatua: Museo Irekia eta Salbatore eliza.

Apirilak 26, igandea

10:00-12:30 Usurbilgo sagardo kultura: bertso ibilaldia Aginagako eta Txokoaldeko sagas-

tietan barrena, Aginagako plazatik abiatuta, Jakoba Errekondoren azalpenekin eta Maialen Lujanbio zein Andoni Egaña bertsoariekin.

Maiatzak 16, larunbata

11:00-12:30 Salbatore Elizaren ondarea ezagutzeko bisita gidatua, organo erakustaldiarekin (gazteleraz).

Maiatzak 27, asteazkena

10:00-11:00 Zero Zabor bisita gidatua.

Maiatzak 29, ostirala

10:00-11:30 Zaintzaren Usurbil bisita gidatua.

Informazio gehiago eta erreserbak: 650usurbilbizi.eus

'Xeibrekeriak', Arantxa Manterolak bildutakoak

Perrejilas (1930 inguru)

Orain Sutegi dagoen lekuan, garai batean Mixerikordia etxea zegoen. Bertan bizi omen zen *Perrejilas* ezizenez ezagutzen zuten amona panpoxa bat, beti buruko zapia tente-tente eta mantalurrekoa ondo plantxatuta.

Arratsalde batez, hor joan da enkargu batera Kale Nagusiko okindegira. Bertako etxeoandre Amandri sukaldean ari,

eta iloba Hilari bidali du dendara.

-Amandrik, sukaldetik: *Zein da?*

-Hilari, ixilik.

-Amandrik berriz: *Zein den galdetu diñat?*

-Hilari, ixilik.

-Amandrik, haserre: *Hor al hago edo zer?*

-Azkenean bezeroak berak: *Perrejilas esaten didate.*

Hilarik ez omen zuen sekulan jakin haren jatorrizko izenik.

Atxua (gerra ondoren)

Sutegi Kultur Etxeko lekua Mixerikordia zeneko beste istorio bat.

Bertan urte luzez bizi izan omen zen Aginagako Atxua esaten zioten gizasemea. Hau ere erretxin samarra, eta beti kexu.

Gerran besoa eta hanka galdu zituen Joxe Mari Iraolari hor ari zaio hemen min duela eta hankak ez dakit zer duela, belarria berotzen.

-Joxe Marik: *Zertan kezaxatzen haiz? Hemen nagok ni, besoa eta hanka mozturik.*

-Atxuak: *Bai, baina hi gaztea haiz eta haziko zaizkik!*



Martxoaren 27an eskaini zuten ikusentzunezkoa Eliza Zaharrean.

'Enarak' dokumentala Aginagan

Aginagako Eliza Zaharra El-karguneak "Enarak" izeneko dokumentala proiektatu zuten martxoaren 27an Eliza Zaharrean. Horren osterako solasaldia programatu zuten baita sorkuntza lan horren zuzendari Beñat Iturriozekin eta Enarak taldeko abeslari eta organojole izandakoekin.

Diktadura frankista betean, 1967an "askatasun egarri ziren

seminarista batzuek" sortu zuten. "Ehunka kontzertu eman ondoren, 1971n misteriotsuki desagertu ziren, bertirako".

Taldeko abeslariaren seme Beñat Iturrioz "taldearen az-tarnen bila abiatuko da, ornitologia, collage-a eta bilaketa eszentriko bat nahasten dituen labirinto filmiko batean murgilduz".

Urkamendi eta larbe arteko bidearen konponketa

Apirilaren 7tik 9ra iragarri arren, hilaren 13tik 15era konponketea zuen Udalak Urkamendi eta larbe arteko bidea. Konponketalanekiraun artean, bide hori itxita egongo dela ohartarazi du Udalak. Erakunde horrek "Arri kontratatu du zeregin horretarako, eta 29.530 euro bideratuko dira bidea

konpontzera". Egingo dituzten lanei dagokienez, Udalak zehaztu duenez, "Urkamendi eta larbe arteko bideko asfalto altxa, eta hormigoizko bide berria egingo da". Udaletik gaineratu dutenez, lanak amaitu eta hurrengo hiru asteetan, partzialki itxita segiko du ibilgailu astunentzat bide horrek.



14-18 urte bitarteko kanporaketan ez zen usurbildarrik izan.

Eskolarteko bertso txapelketa

Gipuzkoako Eskolarteko bertso txapelketako azkeneko kanporaketa Usurbilen jokatu zen. 14-18 urte bitarteko sei gaztek hartu zuten parte kanporaketan eta Haritz Alkorta izan zen garaile. Irabazleaz gain, Haritz Murua, Xanet Ormaetxea, Jare Bengoetxea, Leire Ormazabal eta Arkaitz Lasa aritu ziren kanpari.

Finala, Azpeitian

Hainbat lan egin behar izan zituzten. Hasierako zein bukaerako agurrez gain, banaka, binaka eta hirunaka abestu zuten denek.

Arestian aipatu bezala, Haritz Alkorta izan zen txapeldun Aitzaga elkartean jokaturiko kanporaketan, eta zuzenean sailkatu zen Azpeitiko finale-rako.

1960an jaiotakoek topaketa

1960. urtean jaiotako herritar-rak maiatzaren 23an elkartuko dira, eguerdi partean, Atxega jauregian. Izen-ematea hala ere, maiatzaren 10era arte egongo da zabalik eta antolatzaileek telefono zenbaki hauek jarri dituzte interesatuen eskura:

Mila: 670 906 417.

Marije: 676 855 612.

1952koak, maiatzaren 9an

1952an jaiotakoek kinto bazkaria maiatzaren 9an izango da, Andatza tabernan (Egurtzegin).

Eguerdiko 14:00etan elkartzeko deia egin dute. Dena den, izena alde zuzenetik eman behar da eta horretarako antolatzaileek telefono zenbaki bat jarri dute interesatuen eskura: 620 516 715 (Javier).

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
· eguneko menua · asteburuko menua
· oilasko erreak, ogitarkekoak, raziokoak..
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

EGIN ZAITEZ
BAZKIDE!
www.noaua.eus

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Antxi
PAIRUEN
JATEKOA
· bazkariak EGUNERO
· afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 · © 688 690 361



Itziar Agirre, Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatua. GIPUZKOA.EUS

Errenta aitortzeko garaia, euskaraz tramitatze deia

Diru kontuak Ogasunarekin argitzeko garaia heldu da. Iazko errenta tramitatze aukera duzue jada; autolikidazio proposamenak ikusi eta telefonoz, internet nahiz "Errenta+" aplikazioaren bidez onartzeko, errenta telematikoki nahiz modu mekanizatuan tramitatze aukera uztailaren 2ra arte.

ARITZ LASARTE

Lehenago, ekainaren 8an itxi-ko dute errenta mekanizatuko hitzordua eskatzeko epealdia. Informazio gehiago bideotatik jaso dezakezue: 943 113 000 / gipuzkoa.eus

Aldaketak

Zenbait egoitzapenen berri eman du Gipuzkoako Foru Aldundiak tramitazio horri begira. Izan ere, aurreikuspen arabera, gipuzkoarren %80ari eragingo dion "zerga sistemaren erreforma fiskala onartzen duen Foru Arauaren bidez 2025ean hartutako neurri nagusien aplikazioaren urtean, Foru Ogasuna IZFERekin elkarlanean aritu da bere programa eta aplikazio guztiak egokitu eta hainbat informazio tresna garatzeko, kanpainan gorabeherarik izan ez dadin" eta Ogasunaren buletagoetara joan beharrik izan

gabe, "zergadunek beren aitortpena modu eroso eta erraz batean baieztatu edo aldatu ahal izateko, nahiago duten bidea erabiliz".

Oraingo hau, "kanpaina konplexuagoa da, PFEZean kenkari ugari sartu direlako lehen aldiz, adin desberdinetako zergadun askori mesede egingo dietenak, eta hortaz gure helburua ahalik eta erraztasun handienak ematea eta zerbitzurik eraginkorrena eskaintzea da", jakinarazi du ogasunetako eta finantzetako foru diputatu Itziar Agirrek.

Horretarako, "Zergabidea programara deskargatu, aldaketak egin ("kenkari berriak sartzea", adibidez) eta, ondoren, aitortpena internet bidez aurkezteko bidea", ahal bezainbeste sinplifikatu dutela ohartarazi dute. Horrekin batera, "autolikidazio proposamena onartzeko aukera

posible guztiak jarri ditugu zergadunaren esku", ogasunetako eta finantzetako foru diputatu Itziar Agirreraren esanetan. Hiru aukera zehaztu dituzte autolikidazio proposamena online onartzeko; aldaketarik gabe onartzea, aldaketekin onartzea edota edozein kontzeptu aldatuta onartzea IFZ eta proposamenaren kodearekin.

Errenta aitortzeko beharrezko argibideak jasotzeko bideo tutorial sorta prestatu du Gipuzkoako Foru Aldundiak, baita erreforma fiskala aplikatzeko irizpideei nahiz gazteen errenta aitortpenari lotutako neurri buruzko informazio guneak.

Aldundikoen aurreikuspenen arabera, "guztira, 330.000 zergadun inguru mesedetuko dituzte arlo hauetako neurri berriek: etxebizitza, zainketak, gizarte aurreikuspena, kon-

tziliazioa, trantsizio ekologikoa edo behar espezifikoak dituzten familia eta kolektiboentzako laguntza". Onartutako neurri fiskalek "105 milioi euroko eragina izango dute zergadunaren alde PFEZean".

Euskaraz tramitatze deia

Herritarrok administrazioarekin ditugun hartuemanak euskalduntzen segi eta hizkuntza horretan izatea sustatzeko aldera, errenta euskaraz aitortzeko kanpaina abiarazi du Usurbilgo udalerria barne hartzen duen Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) udal eta foru ogasunekin lankidetzan. "Euskararen aldeko hautua egitea da aurten ere, kanpaina honekin UEMAK eta udalek lortu nahi dutena".

Mankomunitate horren arabera, "errenta euskaraz egiten duen herritarren kopurua gorantz ari da urtez urte, baina oraindik ere errealitate soziolinguistikoak erakusten dituen datuetatik urrun dago, eta horretan eragin nahi dute kanpaina honekin".

Usurbilgo datuak jakinarazi ditu Udalak. "Gero eta herritar gehiagok egiten du errenta euskaraz, eta azken ekitaldiak izan ziren daturik onenak", nabarmendu du. Hona hemen, azken urteotan errenta euskaraz tramitatu duten herritarren kopurua:

- 2024ko ekitaldian 1.332 lagunek, %35ek.
- 2023ko ekitaldian 1.213 lagunek, %34,1ek.
- 2022ko ekitaldian 1.075 lagunek, %32,32k.
- 2021eko ekitaldian 1.021 lagunek, %31,09k.

"AURTEN ERE, GIPUZKOAN 'OGASUNAREKIN EUSKARAZ' LEOA ERABILIKO DU ALDUNDIAK"



Atsobakar eremuko partzela desafektatzea onartu zuen aho batez udalbatzak martxoaren 26ko osoko bilkuran.

Atsobakar, diru kontuak eta bake epaitegia hizpide, osoko bilkuran

Atsobakar eremuko partzela, bake epaile ordezkoren hautaketa edota udal finantziarioa hizpide izan zuten, martxoaren 26an udalbatzak eginiko osoko bilkuran. Saioaren bideo aktak ikusgai dituzue dagoeneko.

ARITZ LASARTE

"Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-108 (Atsobakar) eremuan, udalaren jabetzakoa den HEU 108.3 Exekuzio Unitateko PD partzela desafektatzea eta ondorioz, ondare-ondasun bihurtzea" onartu zuen aho batez udalbatzak, martxoaren 26ko osoko bilkuran. Erabaki horri lotutako espediente Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren iragarki taulan argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, hilabetez jendaurrean jarriko dute.

1999. urtean lerrootan minztagai dugun Atsobakarreko partzela jaso zuen Usurbilgo Udalak. Baina orduetik, "partzelan ez da inoiz inongo era-

bilerarik ezarri, eta ez da aurreikusten inongo erabilera publikorik ezartzea ere. Beraz, ez dago erabilera publiko eraginkor bati lotuta". Ildo horretan, "Udalak onartu zuen 2022-26 urte arterako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Plan Estrategikoan ere ez du inolako erabilerarik aurreikusten Atsobakarreko partze-

"ATSOBAKARREN UDAL JABETZAKO PARTZELA DESAFEKTATZEA ONARTU ZUTEN AHO BATEZ"

larako", azaldu zuen Ainhoa Arrozpide zinegotziak azken osoko bilkuran, "izan ere, erreserbako ekipamenduko beste partzela batzuk baditugu etorkizuneko kirol ekipamendu beharrei erantzuteko".

Testuinguru horretan, Usurbilen mugakidea den Lasarte-Oriako Udalak aipatu "lurzatia erosteko asmoa azaldu

"DIRU-SARREREKIN 2025EKO GASTUAK FINANTZATZEKO AHALMENA IZAN DU UDALAK"

zigun", Atsobakarren dituen kirol instalakuntzak handitu eta hobetzeko. Horren harira, bi udalok "partzela zuzenean besterentzeko jarduketak eta baldintzak arautzeko lankidetzaz hitzarmena" sinatu zuten iaz.

Hitzarmen hartan jasoa denez, "zuzeneko esleipena eta jabetzaren transmisioa eskritura publiko bidez formalizatu dira, gehienez ere bi hilabete epean, Hiria Antolatzeko Plan Orokorra (HAPO) indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita". Salerosketa hori HAPOa onartu eta aipatu bi hilabete epealdian onartu behar izan, eta "prozedura honek hilabete epean jendaurrean egon behar duenez, etxeko lanak aurretik egiten hasita" komenigarritzat jo zuten udal gobernu taldeak. Espediente honi bide ematea udalbatzari dagokionez, martxoaren 26ko osoko bilkurara eramane zuten gaia udal gobernu taldeak. "Ez dago desafektazioa eragozten duen arau berezirik eta interes publikoko justifikazio egokia eta arrazoitua denez, desafektazioa legez bideragarria dela ulertzen da".

Emaiza positiboa

Diru kontuei ere tartea eskaini zieten martxoaren 26ko udalbatzaren osoko bilkuran. Udal kontuhartzaileak gai horri lotutako xehetasunen berri eskaini zien udal ordezkari. 2025eko aurrekontuen emaitza positiboa izan zela jakinarazi zuen; zehazkiago esanda, 1.660.010,73 eurokoa. Ondorioz, iazko "diru-sarrerekin 2025ean sortutako gastuak finantzatzeko ahalmena izan du udalak, eta, gainera, 1.660.010,73 euroko soberakina sortu du". Ohi bezala, 2026ko lehen hiruhilekoan udalontzat aurreko urteko kontuen itxiera garai honetan, udal kontu hartzaileak berri emandakoaren arabera, "2025eko kontuen likidazioak betetzen ditu aurrekontu egon-

→ kortasunari lotutako hiru betekizunak. Batetik, 714.316,31 euroko superbita izan du; hau da, ohiko sarrerak ohiko gastuak baino handiagoak izan dira. Bestetik, zor bizia %23,13koa da, legeak baimentzen duen %70eko langatik urrun. Eta, azkenik, gastu arauari dagokionez, ez du gastu muga gainditu: 11.779.786,73 eurokoa zen muga, eta hori baino 165.215,85 euro gutxiago gastatu ditu". Ondorioz, "horiek guztiak kontuan hartuta, udalak ez du Plan Ekonomiko Finantzario-rik egin beharko".

Ez hori bakarrik. "Likidazioa egin ostean, aurrekontuaren emaitza positiboa bada, diruzaintza gerakineko zati bat hurrengo urteko aurrekontuetara pasa dezakete udalak. Aurten, 6.054.898,96 euroko txertaketa egingo da: 2026rako hasieran onartutako 14.348.103,59 euroko aurrekontuarigehituta, 20.403.002,55 eurokoa da Usurbilgo Udalaren aurtengo aurrekontua".

Horrez gain, udal aurrekontuek urte hasieratik amaierara izandako bilakaera ere zehaztu zuen. "2025 hasierako aurrekontua 15.235.194,67 eurokoa bazen ere, urtean zehar egindako kreditu txertaketekin eta kreditu gehigarriekin, 2025eko behin betiko aurrekontua 21.735.439,50 eurokoa izan zen".

Bake epailearen ordezkia

Hutsik dago Usurbilgo bake epaile ordezkioaren lanpostua. Hura betetzeko iragan udazkenean udalbatzak eginiko deialdira ez zen inor aurkeztu. Horregatik, orain deialdi hori onartu eta abiarazi du udal organu berak. Martxoaren 26ko osoko bilkuran udalbatzak aho batez onartu zuen, "hilabete bateko epea finkatzea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita, Usurbilgo Bake Epaile ordezkia izateko interesa dutenek eskaerak aurkeztu di-



Bake epaile ordezkia hautatzeko deialdia abiaraztea onartu zuen udalbatzak martxoaren 26ko osoko bilkuran.

tzaten. Eskaerak udaletxe honetako erregistroan edota Administrazioako Jardunbidea arautzen duen Legediak xedaturiko eran aurkeztu beharko dira".

Aipatu moduan, hilabete gutxi tartean, bigarren aldiz egin du udalbatzak bake epaile ordezkia hautatzeko deialdia. Lehen saiakera, iragan irailaren 25ean egin zuen udalbatzak osoko bilkuran. Orduko hartan, "EAEko Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzatik jasotako idatziaren ondoren, udalbatzarrak Usurbilgo bake epaile titularra eta ordezkia hautatzeko deialdia egitea erabaki zuen" aho batez. Deialdi hartara hautagai bakarra aurkeztu zen. Bi hilabete geroago, azaroaren 26ko osoko bilkuran, hautagai hori bake epaile titularra izatea proposatu zuen udalbatzak eta gerora, EAEko Auzitegi

**"BIGARREN ALDIZ
EGIN DU
UDALBATZAK BAKE
EPAILE ORDEZKOA
HAUTATZEKO
DEIALDIA"**

Nagusiko Gobernu Idazkaritzak hautagai honen (Agustin Esnaola Etxabe herrikidea) izendapena onartu zuen. Aldiz, "beste hautagaierik ez zegoenez, ordezkorik ez zen izendatu". Ondorioz, "martxoaren 2an EAEko Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzako idatzia" jaso zuen Udalak, "Usurbilgo Bake epaile ordezkia izendatzeko dagokion jardunbideari hasiera ematea eskatzen" ziona. Udalbatzak hautaketa hauek bideratzeko eskumena duenez, aipatu moduan, martxoaren 26ko osoko bilkuran onartu zuen prozesu hori abiaraztea. Bake epaile ordezkia izateko hautagaiek baldintza hauek bete beharko dituzte: espainiar estatuko nazionalitatea izatea, adinez nagusia izatea eta "Botere Judizialeko Lege Organikoko 102., 302., 303. eta 389. artikuluek kargu judizialeko

**"MARTXOAREN
26KO OSOKO
BILKURAKO BIDEO
AKTAK IKUSGAI
DITUZUE
DAGOENEKO"**

aurreikusitako ezgaitasun eta bateraezintasun kausak ez edukitzea". Horrez gain, "honako merituak ere baloratu ahal izango dira: bizilekua, curriculum eta euskararen ezagutza".

Bideo aktak ikusgai

Iaztik presentzialki soilik ez, Usurbilgo Udaleko udalbatzaren osoko bilkurak telematikoki ere zuzenean jarraitzeko aukera duzue. 2025eko irailetik zuzenean ikus daitezke udalbatzaren hileroko ohi-ko osoko bilkurak, baita, tarteka deitu ohi dituzten ezohiko izaerakoak ere Udalak Youtuben duen @usurbiludala4589 kanalean hain zuzen.

Azkenaldian, ordea, beste urrats bat ere eman du Udalak osoko bilkuren digitalizazioan sakontzeko. Bideo akten tresna abiarazi du. "Osoko bilkurako edukiak sailkatuta erakusten ditu, puntuka eta ba-koitzean parte hartzen duten hizlariak zehaztuta, eta, horrekin batera, lau hizkuntzatan azpititulatuta", zehaztu dute Udaletik. Martxoaren 26an eginiko udalbatzaren osoko bilkurako bideo aktak ikusgai dituzue dagoeneko <https://usurbil.bideoaktak.eus/> atarian.

Lan-baldintza duinen aldeko borrokan

Lan-baldintza duinak bilduko dituen hitzarmenaren alde borrokan segitzen dute erraustegiko langileek. Asteotan, Foru Aldundiaren egoitza atarian mobilizatzeoak dira.

Lan-hitzarmen duina galdegiten segitzen dute Zubietako erraustegiko langileek. Martxoan zehar, hainbat mobilizazio egin dituzte; azkena, hilaren 26an, "konponbidea orain!" aldarripean. Langileok bizi duten egoeraren erruduntzat jo zuten Ekobal, erraustegia kudeatzen duen enpresa eta Gipuzkoako Foru Aldundia erantzuleak. "Gure osasuna bermatu!", oihukatu zuten sarritan manifestazioan zehar, lan-baldintza duinak behin eta berriz galdegiteare-

kin batera. Benetako toxikotasuna ez dietela aitortzen salatu zuten. Hilaren 24an zuten bilera enpresako zuzendaritzarekin. "Eskaintza bat jaso dugu, aurrekoarekin alderatuta" atzerapausotzat jo zutena. Bileran hitz egindakoa eskatu zioten enpresari langileen batzordetik adierazi zuten, baina "guk jasotakoa guztiz aldatua izan da, mahaian hitz egindakorekin alderatuta". Horrekin batera, enpresatik bileran adierazi zieten, "arazo



Martxoaren 26an Bugatitik barrena eginiko mobilizazioa.

ekonomikoak zituztela". Horren harira, langileon esanetan, ordea, "GHKEkondakin UTEa kontratatua du eta Ekondakinek azpikontrata baten bidez Ekobal du kontratatua. Ekondakinen eta Ekobalen Urbaser enpresa pribatua dago eta esaten digutena da Ekobalek milioi bat euroko galerak dituela, baina ez digutena esaten da, Ekondakinek irabaziak dituela. Orduan, batetik galtzen

dutena bestetik irabazten dute". Asteotan, Foru Aldundiaren egoitza atarian mobilizatu asmo dute.

"ASTEOTAN, FORU ALDUNDIAREN EGOITZA ATARIAN MOBILIZATZEKO ASMOA DUTE"

Udalhitz berria negoziatzeko mobilizazioetan

Udalhitz berria negoziatzea galdegiteko mobilizatu ziren LAB sindikatuak deituta martxoaren 26an udal langileak. Lanuzte gehiago deitu dituzte sindikatuak asteotarako.

Usurbilgo udal langileek martxoaren 26an "EUDEL, blokeorik ez. Udalhitz berria negoziatu" aldarripean, informazio bilkura egin zuten. Gogora ekarri zuten, "Udalhitz negoziatzea blokeatuta dago eta azarotik ez dago aurrerapauso nahikorik". Egoera aldatzen ez bazen, mobilizazioei segida emateko asmoa agertu zuten. Testuinguru horretan, grebara deitu dituzte egunotan LAB eta ELA sindikatuak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako udaletxeetako

langileak. Apirilaren 17an elkarretaratze bateratuak deitu dituzte, hilaren 23an bi orduko lanuzteak 11:00-13:00 artean eta maiatzaren 14an eta ekainaren 4an egun osoko greba. "EUDELi eta EAJ, EH Bildu eta PSE-EE alderdi politikoei exijituko diete Udalhitzeko eta udaletako mahaietan lan-baldintzak hobetzea hemen eta orain negoziatuz". Gutxieneko aldarrikapenen zerrenda adostu dute; besteak beste, urteotan galdutako erosahalmena berreskuratzea, 1.500



LAB-ek deituta, udal langileek martxoaren 26an eginiko informazio bilkura.

euroko gutxieneko soldatik behera langilerik ez azpikontratatzeko, pribatizazioak etetea eta pribatizaturikoa publikatzea, enplegua egonkortzea, langile guztientzako errelebo kontratuak bermatzea, adinagatik lanaldi murrizketarako eskubidea bermatzea soldata eta kotizazioak murriztu gabe, lanpostu guztiak elebidunak izatea eta sarbidean nahiz 12 urtean bi hizkuntza ofizialak

derrigorrezkoak izatea, soldata arrakalak eteteko neurriak adostea, kontziliatzeko neurriak...

"GREBARA DEITU DITUZTE LAB ETA ELA SINDIKATUEK UDALETXEETAKO LANGILEAK"



Profesional eta baliabide falta salatu zuten apirilaren 9an, Groseko anbulatorio atariko elkarretaratzetik.

"Propaganda gutxiago eta ekintza gehiago nahi ditugu"

Apirilaren 18ko manifestazioen atariko protesta eguna izan zen apirilaren 9a, Osakidetzaren lurraldeko hiriburuetako zenbait osasun zerbitzuen atarian; horietako bat, Donostiako Gros auzoko anbulatorio atarian egin zuten.

ARITZ LASARTE

Osasun Publikoaren Aldeko Herri Plataformek deitu zituzten mobilizazio horiek; Gipuzkoako hiriburukoa hain zuzen, besteak beste, eskualde hau ordezkaturia duen Donostialdeko Osasun Publikoaren Aldeko Herri Plataformak. "Osasungintza publikoaren alde, promesarik ez! Konponbidea orain!" aldarranean batu ziren elkarretaratze horretan.

Hainbat hedabide erakarritako hitzorduan, etenik gabekoak izan ziren "Osakidetzaz

ez dago salgai", "gutxiago hitz egin, gehiago eragin", "mediku gehiago, adreilu gutxiago" zioten aldarriak edota murrizketen aurkako oihuak.

Aipatu herri plataformen ordezkariak hedabideen aurrean, "dena ondo dagoela esanez" Osakidetzaren kudeatzaileak egiten ari diren "propaganda" salatu zuten. Izan ere, "oso kontrakoa da errealitatea. Hemen ez da ezer aldatu". Are gehiago, egoera okertu dela ohartarazi zuten. "Poliki-poliki ari

gara galtzen gure eskubideak eta hori onartzen ari gara". Profesional eta baliabide falta salatu zuten beste behin, Groseko anbulatorio atariko elkarretaratzetik. Egoera horren aurrean, "kalera aterako gara" iragarri zuten; "propaganda gutxiago eta ekintza gehiago nahi ditugu".

Manifestatzeko deia

Horretarako, herri plataforma horiek manifestazio bana deitu dute larunbaterako, apirilaren 18rako, Osakidetzaren

lurraldeko hiru hiriburuetan; horietako bat, Usurbildik gertuen, Donostian. Arratsaldeko 17:00etan abiatuko da Bulebarretik, "promesa gehiagorik ez! Konponbide errealak orain. Indartu eta defendatu gure osasun publikoa" aldarranean.

Mobilizazio horiei begira, manifestua kaleratu dute aipatu herri plataformek. Norbanakoen nahiz eragileen atxikimenduak biltzen ari dira opaherriplataformak.eus atarian. Bertan, ezinbestekotzat jotzen dute "asistentzia-kalitatea eta Osakidetzako langileen lan-baldintzak" okertzen ari den osasun publikoaren narriadura gelditzeko pribatizazioa gelditzea eta kanporatutako zerbitzuak berreskuratzea; murrizketak amaitu eta itxi diren zerbitzuak berriro irekitzea; finantzaketa publikoa handitzea; Lehen Mailako Arreta, osasun komunitarioa eta Osasun Mentala indartzea; langile kopuru nahikoa egonkorki mantentzea; kudeaketa-eredu gardena eta parte-hartzailea ezartzea; herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea osasun publikoan eta euskararen erabilera beneratzea normalizatzea.

Herritar, eragile eta erakundeek "osasun-sistema publikoaren defentsan indarrak" batu eta larunbaterako mobilizazioetan parte hartzeko deia egin diete.

**LARUNBAT
HONETAN
17:00ETAN
ABIATUKO DA
MANIFESTAZIOA
BULEBARRETIK"**

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42

txirriStra
TABERNA
·PLATER KOMBINATUAK
·BOKATAK ·PINTXOAK
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK



Udajolas uztailaren 6tik 30era egongo da martxan. Izen-ematea ordea, egunotan egin beharra

Udajolasen izena emateko epea aste honetan irekiko da

Udaberrian sartzearekin batera, gurasoen telefono deiak pilatzen hasten dira NOAUA!ren bulegoan. Udajolasen izen-ematea gertu dagoen seinale. Udalak antolatu eta NOAUA!k kudeatzen duen zerbitzu honetan izena emateko epea aste honetan zabalduko da.

IMANOL UBEDA

Udajolas, Usurbilgo 4-12 (HH3-LH6) urte bitarteko haur eta gaztetxoei zuzendutako euskarazko udaleku irekia da.

Udajolasen helburua Usurbilgo gaztetxoei euskarazko aisialdi eskaintza egokia bermatzea da, hezitzailea eta balioetan oinarritua.

Astelehenetik ostiralera

Astelehenetik ostiralera elkartzen dira goiz partean, goizeko 9:30etik eguerdiko 13:30ak arte. Ostegunetan irteerak egingo dituzte eta egun horietan arratsaldeko 16:30ean amaituko da Udajolaseko saioa.

Udalekua, uztailaren 6tik 30era bitarte

Iaz bezala, Santixabel jaien ondoren hasiko da Udajolas: uztailaren 6an astelehenarekin jarriko da martxan eta uztailaren 30ean osteguna amaituko da.

Izen-ematea hilabete honetan egin behar da

Izena emateko epea aste honetan zabalduko da. Apirilaren 16tik apirilaren 27ra bitarte (biak barne) osatu ahal izango da inskripzioa.

Online egin behar da eta hauxe duzue horretarako lotura zuzena: <https://labur.eus/ekpgerlm>

Kuotak

- Kuota arrunta: 135 euro.
- Familia ugarien kasuan: 114,75 euro.

Horrez gain, errentaren araberako hobariak aplikatuko dira, aurrez udalak onartutako ziurtagiria aurkeztuta. Hobariak dituztenek ondorengo kuotak ordaindu beharko dituzte:

- Onartutako hobaria %50ekoa bada, kuota arrunta hobariarekin 67,50 eurokoa izango da. Familia ugariaren kasuan, kuota hobariarekin: 57,37 euro.
- Onartutako hobaria %75ekoa bada, kuota arrunta hobariarekin 33,75 eurokoa

izango da. Familia ugariaren kasuan, kuota hobariarekin: 28,68 euro.

- Onartutako hobaria %90ekoa bada, kuota arrunta hobariarekin 13,50 eurokoa izango da. Familia ugariaren kasuan, kuota hobariarekin: 11,47 euro.

Ordainketa

Ordainketa Laboral Kutxako kontu zenbaki batean egin behar da, eta garrantzitsua da UDAJOLAS eta haurren izen-abizenak adieraztea. Kontua Usurbilgo Udalarena da: ES28 3035 0140 34 1400025811

Izena ematerakoan, bidali elkarte@noaua.eus e-posta helbidera ondorengo dokumentazioa:

- Ordainketa agiria.
- Gizarte Segurantzako txartelaren kopia edo argazkia.
- Familia ugarien kasuan, familia ugarien txartela edo familia liburuaren kopia.
- Hobarien kasuan, udalak aurrez emandako ziurtagiria.

Kontuan hartu beharreko oharrak

- Apirilaren 27a da izena emateko azken eguna. Epez kanpoko izen-ematerik ez da onartuko.
- Informazio gehiago NOAUA!n jaso dezakezue. 688 807 336 telefono zenbakira deituz edo elkarte@noaua.eus helbidera idatziz.
- Guraso-bilera ekainaren 23an asteartea izango da Sutegin, arratsaldeko 17:00etan hasita.

"ORDAINKETA EGITERAKOAN, GARRANTZITSUA DA UDAJOLAS ETA HAURREN IZEN-ABIZENAK ADIERAZTEA"

"Udarregin ere, euskararen alde" Korrika Txikian

Korrika Txikia eta AEK-ren aldeko elkartasun proiektua sustatu ditu Udarregi ikastolak.

Martxoaren 25ean gure artetik igarotako 24. Korrikarekin bat egindakoen artean ditugu Udarregi ikastolako kideak. Hainbat ekimen bideratu zituzten; tartean, bezperan, Kalezar eta herri erdiguneko kaleak zeharkaturiko Korrika Txikia. "Udarregin ere, euskararen alde" izan zen aldarri entzunenetako bat, LH eta HH-koak partaide izandako lasterketan. Helmugan, frontoian, Jaione Eskuderoz zuzenduriko kantaldian, euskarari gorazarre egin zioten ezagunak ditugun abestien

bidez; tartean, biharamuneko 24. Korrikan lekukoa hartutako LH 6. mailako ikasleak.

Kilometroaren eresketa finantzatu eta AEK laguntzeko elkartasun proiektua bideratu dute maila horretako ikasleek azkenaldian. Azoka solidarioa egin zuten Agerialdeko patioan astebetez. "LH6ko ikasleok kilometro bat erosi eta herrian korrika egiteko aukera izan dugu, eta hori posible izan da zuen laguntzari esker. Azokan, Korrikako petoak, belarritakoak, bizkotxoak... saldu genituen, eta egunero guraso



Euskararen aldeko aldarriak nagusitu ziren Udarregikoan Korrika Txikian.

asko gerturatu zineten erostera eta laguntzera. Benetan eskertzekoa izan da zuen inplikazioa. Era berean, Ni Naiz (by Nahia Naiara) eta herriko hainbat saltokiren ekarpenarekin lortutako irabaziak proiektuari bideratu dira", berri eman diote LH6-koek hedabide honi. Horregatik, "eskerrik asko, bihotzez, ekimen hau posible egin duzuen

guztioi. Zuen babesarekin, euskararen alde korrika egiten jarraitzen dugu!"

"ZUEN BABESAREKIN, EUSKARAREN ALDE KORRIKA EGITEN SEGITZEN DUGU!"



Korrika eta AEK laguntzeko elkartasun proiektua sustaturiko taldea.



LH6-koek bildutako laguntza Etumeta AEK euskaltegiari helarazitako unea.



Euskararen alde lasterketa jendetsua egin zuten Udarregikoek.



Euskarari kantuan amaitu zuten Korrika Txikia, HH eta LH-koek.



24. Korrika martxoaren 25eko eguerdian herri erdigunera heldutako unea, lekukoa udal langileek eskuartean zutela.

"Korrikatik harago joan behar dugu"

Martxoaren 25ean gure artetik igarotako 24. Korrikaren balantze ezin gozoagoa egin du AEK-k. Euskara Pizkunde berri batera eramateko deia egindako ekimenetik harago joateko gonbita egin digute, Euskal Herri euskalduna erdiesteko.

ARITZ LASARTE

Euskararen aldeko olatu jendetsuak zeharkatu zuen Euskal Herria ekialdetik mendebaldera, martxoaren 19an hasi eta hilaren 29ra arte. Tartean, udalerrri hau zeharkatu zuen, hilaren 25ean. Hamaika kilometroetan, askotariko elkarte, eragile eta erakunderen 24 lekuko hartze izan ziren. Bidelagun zenbaezinekin batera zeharkatu zuen 24. Korrikak Usurbil; hein batean, euripean, baina denak ere euskaraz bitzitzeko egarriz.

Parte hartzea masiboa izan dela nabarmendu zuen AEK-k lasterketa amaitu berritan. "Euskal Herriak erabateko indarrez erakutsi du euskara gara, eta euskara izan nahi duela". Inoiz baino lekuko hartze gehiago (3.400etik gora) izandako edizio hau "Pizkun-

dearen Korrika" dela gogorazti zuten; "euskara Pizkunde berri batera eramateko deia egin du 24. Korrikak, gazteak lehen lerrora ekarrita".

Gogoan izan, zazpi euskal lurraldeetako gazteek sortutakoa izan dela mezua, aurtengo Korrikaren "euskara gara" komunitateari deia egiten dion aldarriaren bueltakoa. Hala zioen mezuaren amaierak; "azalberrituta datoz muntro zaharrak, baina gorputz

"EUSKARA PIZKUNDE BERRI BATERA ERAMATEKO DEIA EGIN DU 24. KORRIKAK"

bat sortu dugu. Askotarikoa, konprometitua, indartsua. Eta gaur hemen badago, egongo da bihar ere. Euskara gara eta hemen gaude. Hemen gara eta euskaraz gaude. Aurrera goaz. Bazatoz?". Aurrerabide horretan, Euskal Herri euskalduna izatea, "horixe da gure gutxieneko hizkuntza-eskazinuna" nabarmendu du AEK-k eta horren alde eragitera deitu gaituzte guztioi. Horregatik, "Korrikak 11 egun horietatik

"EUSKARA GARA ETA HEMEN GAUDE. HEMEN GARA ETA EUSKARAZ GAUDE. AURRERA GOAZ. BAZATOZ?"

harago joan behar dugu. Hori dela-eta sortu dugu Korrikaren 12. eguna izeneko ekimena". 12. egun hori, apirilaren 22rako antolatu dute, asteazkenarekin. "Ordubeteko eskola emango dugu, doan, gure ehun euskaltegietan. Hasiera-mailako klaseak izango dira, oraindik euskarara hurbildu ez direnentzat", iragarri du AEK-k. Eskola bana doan antolatu dute egun horretan Lasarteko Muntteri AEK euskaltegiak 10:00-11:00 artean eta Usurbilgo Etumeta AEK euskaltegiak 18:00-19:00 artean. Informazio gehiagorako: 607 609 379 / usurbil@ae.eus.

Horrez gain, adi, izango da eta hamahirugarren egun bat ere. "Maiatzaren 21ean inoiz baino euskara gehiago entzungo da gure artean!", iragarri dute. Ostegun horretarako, "65 mintzodromo antolatuko ditugu" jakinarazi dute, "Euskal Herriaren luze-zabalean. Azken batean, horrela lortuko dugu helburua: ikasiz eta praktikatzuz". Azkenik, ekainaren 13ko Euskaltzaleon Martxa-rekin bat egiteko deia egin dute. Ekimen horiei buruzko informazio gehiago jaso nahiz izena emateko esteka hau duzue eskuragarri: korrika.eus/au/etaizangogara

Literatura lehiaketa

Usurbilgo euskaltegiak abian du, bestalde, 4. Etumeta Literatura Lehiaketa. Apirilaren 22a izango da idazlanak antolatzaileei helarazteko finkatua duten azken eguna. 18 urtetik gorako usurbildarrek edota euskaltegiko ikasleek parte hartu ahaliko dute. Gehienez, 650 hitzeko sorkuntza lanak aurkeztu ahaliko dira, gai librean, euskaraz eta nahi izanez gero, tokian tokiko hizkeran. Lanak aurrez argitaratu gabeak izango dira, baita lehiaketa batera bidali gabeak ere. Sari banaketa ekainaren 3an izango da. Informazio gehiago blogak.eus/etumeta-euskaltegia-ae-atarian jaso dezakezue.



24. Korrikaren lekukoa Udarregi ikastolakoen esku.



Elhuyarreko beteranoak euskararen alde lasterka Aginagarantz.



Akaba eta Fagor Ederlan lantegiek eraman zuten lekukoa Zubietan barrena.



Zubietako Herri Batzarreko kideak, 24. Korrikaren buru.



Zubietako eskolako belaunaldi gazteenak lekukoa hartutako uena.



Ta Puntu kooperatibako kideak gogotsu lasterka lekukoarekin.



Eskolakoen eskutik heldu zen 24. Korrika Aginagara.



Aginagako jai batzordea lekuko eramaileetako bat azken metroetan.



Kalezarko zaintzadun etxebizitzan auzuneko lekuko hartzea.



Lekukoa Orbeldi dantza taldeak eskuratu zuen unea.



Auzoan ere euskaraz bizi nahi dutela aldarrikatu zuen Santuenea K.E.-k.



Aztarrikak eta Kolore Guztiak Elkarteak lekuko hartzea partekatu zuten.



Korrikari eskainitako kantu-jiran plazaratu ziren martxoaren 28an.



Imanol Epelde martxoaren 26ko ikuskizunean, Sutegiko oholtzan.

Omenaldi eta oroimenerako bira egin zuen Kantu Taldeak

Martxoko azken larunbatarekin, kantu-jiran irten ziren hilero moduan, Usurbilgo Kantu Taldeko kideak. Saio berezia eskaini zuten, gure artetik igarotako 24. Korrikari eskaini baitzioten. "Korrikaren bueltan izango garenez, gure taldeak ere bere ekarpe-

na egingo du martxoko kantu-jira honetan, bereziki euskara bultzatzen dituzten kantak aukeratuz eta abestuz", zuten iragarria. Horrez gain, keinua egin nahi izan zieten "Palestinari eta une hauetan gerra eta bortizkeria bidegabea pairatzen ari diren herriei".

"Zerbait sartu zait begian" emanaldia eskaini zuen Imanol Epeldek Sutegin

24. Korrika herriratzen aritutako batzordeak Imanol Epelderen emanaldia antolatu zuen Sutegin, martxoaren 26an; "Zerbait sartu zait begian" izeneko saioa, arbaso usurbildarrak dituen zarautzarrak eskainitakoa. Usurbilgo udalberria kide duen Udalbiltza

partzuegoak euskarazko kulturetara sustatzeko abiarazitako Geuretik Sortuak proiektuaren baitan, Bizkaiko Ajangizaren eta Muxikan eginiko egonalditik ondutako emanaldia da, spoken word-a, musika elektronikoa eta irudiak uztartzen dituen antzezlan.

lazko marka hautsita, hirugarren ediziora begira jada

Marka berri bat hautsita, 6,7 kilometroko ibilbideari 44 itzuli eman eta ia 300 kilometro egin ostean amaitu da aurtengo 2. Ibai-Ondo Backyard erronka. Meltxor Iza nagusitu da.

44 itzuli eta 295 kilometro pasatxoko ibilbidea egin ostean, Meltxor Iza izan zen martxoaren 28ko goizeko 8:00etan hasi eta hilaren 30eko goizaldeko 5:00etan amaituriko 2. Ibai-Ondo Backyard erronkaren irabazlea. 50 orduetara heltzeko antolakuntzatik aurrez adierazitako erronka betetzera heltzeko sei itzuli baino falta ez ziren arren, iaz Imanol Ale-sonek eginiko 41 itzuliko eta 275 kilometroko marka hobetu du Izak eta bere aurretik erretiratutako Igon Mancisidorrek. Hilarren 29ko arratsaldeko 20:00etatik biak aritu ziren, Santuenea, Atallu eta Txokoalde lotutako 6,7 kilometroko ibilbidea osatzen. 43 itzulirekin eta 288 kilometro eginda amaitutzat eman zuen ekimena Mancisidorrek.

120 partaide pasatxo abiatu ziren martxoaren 28ko goizeko 8:00etan atsedentekua zuten frontoi ataritik. Iluntzean oraindik partaideen erdiak eman zion segida erronkari. Gau eta goizalde horretan nabarmen murriztu zen partai-

de kopurua. Igande goizerako bost ziren lehiatzen ari ziren kirolariak. Arratsalde partean hiru baino ez ziren eta hilaren 29ko iluntzetik aurrera, aipaturiko bi finalistak baino ez.

Balantze gozoa

Eguraldiak lagundu ez zuen arren, oso pozik azaldu dira Ibai-Ondo Backyard lasterketako antolakuntza taldekoak eta dagoeneko, 2027ko hirugarren edizioan pentsatzen ari direla adierazi digu Iñaki Bengoetxeak, lasterketaren koordinatzaileetako batek. Ia hiru egunez, Santuenea auzoa korrikalariz josita egon zen, aipatu erronka jokoan zen artean.

Guztira, 121 parte-hartzaile bildu ditu bigarren edizioak. Gizonezkoetan, aipatu moduan, Meltxor Iza izan zen nagusi 44 itzulirekin; hau da, guztira 295,064 kilometro eginda. Emakumezkoetan, Carmen Garcia-Riaño izan zen garaile 23 itzulirekin, 154,238 kilometro inguru eginda. Buruntzaldean, Hernaniko Eva Esnaola



Meltxor Iza, itzuli gehien emandako aurtengo parte hartzailea.

eta Aitor Otamendi nagusitu ziren. Antolakuntzako kideek "balorazioa oso positiboa" egin dute aurtengo lasterketaz. Proban zehar izandako eguraldi zakarrarengatik, zalantzak zituzten ea igandera iritsiko ote ziren, baina astelehen goizaldeko 5:00etara heldu ziren korrikalariak. "Gogo askorekin gaude, ilusioz beteta eta hirugarren edizio bat egingo dugu", horrela azaldu dio Bengoetxeak hedabide honi. Jendearen aldetik "goxotasun eta hurbiltasun handia" jaso dutela adierazi digu, baita partaideek

ere. Horrek dagoeneko hirugarren edizioan pentsaraztea ekarri du, eta data zehazten hasiak dira jada. "Askoz edizio gehiago egotea espero dugu", eman du jakitera Bengoetxeak.

**"GOGO ASKOREKIN
GAUDE, ILUSIOZ
BETETA ETA
HIRUGARREN
EDIZIO BAT
EGITEKO PREST"**



Herri ordezkariarik ez da falta izan bigarren edizio honetan ere.



120 partaide baino gehiago erakarri ditu aurtengo edizioak.



Martxoko azken astebukaeran, blokeko kategorian nagusitu zen.

Markel Korta podiumera igo da Espainiako Kopako lehen probetan

Kirol eskaladako Espainiako Kopako lehen probak martxo-ko azken astebukaeran jokatu ziren Caceresen eta gazte usurbildarra jaun eta jabe izan zen blokeko kategorian, 15 urtez azpikoen mailan.

Zailtasun kategorian berriz, Espainiako Kopako lehen proban parte hartu du Markelek, Euskal Selekzioarekin batera.

Aurreko asteburuan izan zen proba, eta hau ere Caceresen jokatu zen. Markel Korta bigarren izan zen bere mailan. Euskal Selekzioaren balorazioa oso positiboa da: "finaletan presentzia nabarmena izan dugu, hainbat podium egin ditugu eta hurrengo probetara begira, sentrazio onekin bueltatu gara".



Joko garbiko jokalariek gazteak eta helduak albiste izan dira azken asteotan.

Zubietako gazteak nagusitu ziren Eskola Kiroleko joko garbiko txapelketan

Eskola Kiroleko txapelketako final ugari jokatu ziren duela bi astebukaera. Zubietarrek joko garbiko txapelak jantzi zituzten. Zumaiaik larruzko paletako finala irabazi zuen, Behar Zana-Bidaniak ikus paletakoak eta Danok Batek eta Gaztelekuk zesta-puntakoak.

Joko garbik bestelako albisteak ere eman ditu egunotan.

Gipuzkoako Txapelketan, Txost 1 taldea Zubieta 2 taldeari gailendu zitzaion Ezker Hormako Kluben Arteko Gipuzkoako Txapelketan:

Txost 1 (Andoni Zabala Lekuona-Txomin Nazabal Etxebeste) 40.

Zubieta 2 (Ander Iruretagoiena Eceiza-Unai Azpiroz Iztuetta) 11.



Miriam Arrillaga-Goiuri Zabaleta bikotea, urdinez jantzita.

Miriam Arrillagak bikain hasi du Nafarroako Irekia txapelketa

Emakumezkoen esku-pilotako Nafarroako Irekia martxoaren 28an abiatu zen, Zugarramurdin. Goiuri Zabaleta-Miriam Arrillaga bikotea izan zen txapelketako lehen kanporaketa irabazi zuena. Ibarrola-Bertiz bikotea azpiratu zuten, 22-8 izan zen azken emaitza.

Emakumezkoen esku-pilotako Nafarroako Irekia martxoaren 28an abiatu zen, Zugarramurdin. Goiuri Zabaleta-Miriam Arrillaga bikotea izan zen txapelketako lehen kanporaketa irabazi zuena. Ibarrola-Bertiz azpiratu zituzten, 22-8 izan zen azken emaitza.



Martxoaren 27an, ikuskizun ederra eskaini zuten frontoian.

Pagazpe, Errendimenduko Gipuzkoako Txapelketako finaletan

Martxoaren 27an partida ugari jokatu ziren Usurbilen. Hasteko, alebiren hirugarren mailako ekialdeko eskuz binakako finala jokatu zuten; batetik, Iturralde eta Urangak eta, bestetik, Roteta-Iturralde-Zurutza jokalariek osaturiko taldeak; bestela esanda, Pagazpe 1 eta

Pagazpe 2 taldeek. Iturralde eta Uranga nagusitu ziren.

Segidan, infantilen 3. mailako Gipuzkoako finala jokatu zuten Harreguyk eta Ostolazak (Pagazpe 1) eta Barandiaranek eta Muruak (Pagazpe 3). Pagazpe 1 taldea izan zen garai-ilea.



Usurbil Cup txapelketa berreskuratu zuten apirilaren 10ean.



Mus txapelketa jendetsua jokatu zuten iragan larunbatean.

Usurbil F.T., mende erdia ospatzen

Mende erdiko ospakizun ziklo betean da Usurbil F.T. Ekainera arte antolaturiko zikloaren baitan, bi ekintza jendetsu

antolatu zituen apirilaren 10ean. Goiz partean, urte luzez arrakasta itzela izandako Usurbil Cup txapelketa berresku-

ratu zuten Haranen. Lau orduz, aldi berean hiru neurketetan parte hartu zuten, aurrez izena emandako gaztetxoek.

Mende erdiko bazkaria

Futbol zelai berean musean aritu asmo zuten arratsalde partean. Euria tarteko, ordea, futbol taldekoen lokalean egin zuten azkenean. Ekimen horiek

ez dira 50. urtemugaren hari- ra Usurbil F.T.-k antolaturiko bakarrak. Izan ere, tartean, herri bazkaria iragarri dute ekainaren 27ko jaialdian. Otor- durako aurrez izena eman ahalko da maiatzaren 3ra arte, Usurbil F.T.-ren sare soziale- tan. Hala egiten dutenek, gero, lehen tasuna izango dute izen-emate ofizialean.



Aretoko ikastaroen eskaintza nagusituko da uztaila honetan.

Udako kirol udal eskaintza

Udan ere ariketa fisikoa sustatzeko hainbat jarduera iragarri ditu Udalak uztailaren 1etik 30era (hilaren 2ko jaiegunean izan ezik) haur eta gazteentzat (aisialdia, mugimendua eta jolasak uztartzen dituzten kirol txokoak, skatea, eskalada, gimnasioko tresnak ezagutu eta entrenamendu saio egokiak egiten ikasteko saioak), 16 urtetik gorakoentzat

(spinning, pilates, 3. adina, mantentze gimnasia, konbinatua, entrenamendu funtzionalak, multigym, total training) nahiz 16 urtetik gorako emakumeentzat (haurdunentzat, erditze ostekoentzat eta oinarriko indar entrenamendua lantzeko saioak).

Berrikuntza nagusia skate ikastaroa izango da. Bizkarreko skate parkea eraberritu

ondotik, herritarrek mailegatzeko zortzi skate erosi ditu Udalak jarduera hau gizarteratzeko. "Kiroldegiak skatea utziko dio behar duenari, baina kaskoa eta bestelako babesgarriak norberak eraman beharko ditu". Bestalde, ezin- go da ordutegi berdinean antolatzen dituen bi jarduera desberdinetan izena eman. Azkenik, "zerbitzuen zentzuzko erabilera bermatze aldera, haur guztien asistentzia datuak jasoko dira".

Ikastaroen eskaintzarako izen-ematea apirilaren 16tik 27ra izango da, lotura honetan: <https://forms.gle/tjCgqGB-KuxdT23Nc9>.

Informazio gehiago: 943 37 24 98 / kirola@usurbil.eus.

UDAKO KIROL IKASTAROETARAKO IZEN-EMATEA APIRILAREN 16TIK 27RA IZANGO DA



Zumarragan jokatu ziren finalak.

Senperena-Lizaso nagusi, Gipuzkoako Pilota Egokituaren Irekian

Gipuzkoako Irekia txapelketako finalak aurreko asteburuan jokatu ziren Zumarraga- ko Beloki pilotalekuan.

Urritasun fisikoa duten pilotarien arteko binakako finalean, Aingeru Senperena eta Beñat Lizaso nagusitu ziren.

Senperena-Lizaso bikoteak 25-21 emaitzarekin irabazi zuten Lasa-De Antaren aurka- ko lehia erabakigarrian.



Daniel Carballo Ostolazak 'Botez bote 100 urte' liburuaren xehetasunak azaldu dizkigu. NOAUA

"Liburua ezinbestekoa da federazioaren sorrera azaltzeko"

DANIEL CARBALLO OSTOLAZA "BOTEZ BOTE 100 URTE" LIBURUKO EGILEA

Daniel Carballo izatez arkitektoa den arren, urteak daramatza pilota munduari lotuta, besteak beste, haren ikerketa-tesia pilota plazen inguruan egin baitzuen.

ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO
Zerk bultzatu zintuen "Botez bote 100 urte Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa 1925-2025" liburua idaztera?

Ni Pilotaren Batzarreko sare sozialen arduraduna naiz due-la hamar urte baino gehiagotik, eta nire ikerketa-tesia pilota plazen inguruan egin nuen, 'Pilota plazen bilakaera frontoietara'. Horrez gain, 'Bote Luzea' ekimenaren hasieran egon ginen. Beti pilotari lotuta egon naiz baita pilotaren munduaren ikerketetan ere. Horregatik gonbidatu ninduten liburuan parte hartzera. Nik uste dut liburua ezinbestekoa dela federazioaren sorrera eta bilakaera azaltzeko.

Lantalde hori izan da liburua sortzeko iturburua.

Nola laburtuko zenuke liburua?
Liburuak bi atal nagusi ditu. Lehenengo atalean federazioaren beraren historia eta gaur egungo egoera kontatu da; hau da, federazioaren datuak fitxa kopuruetan, noiztik

"ZUBIETA MODUKO HERRIAK LUXU BAT DIRA. PLAZA MANTENTZEN DUTE ETA FRONTOIA ERE BADUTE"

hasi ziren lehenengo txapelketak... Gero hainbat egilek pilota mota bakoitzeko egin duten historia propioa ere azaltzen da: bote luzea, erre-montea, pilota egokitua...

Bigarren atal handi bat Gipuzkoako klubengatik inguruko da. Klubei liburuan protagonista izateko gonbidapena

"EZAGUNA NUEN PILOTAREN HISTORIAN GEHIAGO SAKONDU ETA MURGILDU NAIZ"

luzatu zitzaizen, bakoitzak bere historia propioa kontatzeko; hau da, klub bakoitzari haien historiako gauzarik esanguratsuenak kontatzeko gonbita egin genion. Fitxa bat luza-tu zitzaizen eta haiek bete zuten, eta hori liburuaren zatirik aberasgarriena dela iruditzen zait, oso desberdinak izan baitira fitxa berdietatik ateratako emaitzak.

Oraindik badaude plazak eta frontoiak pilotan ibiltzeko?

Irekita dauden denak. Kontua da ez direla erabiltzen. Pilota plaza irekiak publikoak dira, eta zorionez espazio publiko ireki asko ditugu, besteak beste, Usurbilgo pilotalekua. Zorritzarrez ere, eta Gipuzkoan bereziki, frontoi asko plazetan bilakatu dira; hau da, estalpeak eta itxiturak egin zaizkie eta giltza behar da haietara sartzeko. Asteburu batean ezin zara nahi duzunean joan haietara jolastera.

Hala ere, berriro diot, oraindik plaza ireki asko daude eta gure ondarea dira.

Nola eragin dezake frontoi horiek ixteak? Jendea pilotan gutxiago ibiltzea eragin du?

Zalantzarik gabe. Herrietan frontoia erabiltzeko erreserbatu beharra dago, klubek lehenetasuna dute eta bitarte horietan frontoia erabili gabe dago. Beraz, instalazio bihurtzen denean, beharrezkoa da pilota jorratu eta sustatzeko. Liburuan aipatzen denez, gaur egun pilota arautua dago, eta partida ofizialak jolasteko baldintza minimo batzuk bermatu behar dira. Baina hori kontraesan batean bihurtzen da edozeinek ezin badu erabili nahi duenean. Horrek asko mugatzen du.

Zumaiaren kasuan adibidez, frontoi berria eraiki dutenean zaharra ireki egin dute, eta nik uste hori dela egin behar dena. Jatorriz horrela sortu diren plaza horiek mantendu behar dituztela bi espazio horiek. Iparraldean hori ohikoagoa

→ da. Plaza zaharra mantentzen da, eta errebote plaza berri bat egin behar baldin bada egiten da.

Nola izan da libururako informazioa pilotatzea?

Federazioak bazeukan bilduta lan asko, eta gero Koldo Mitxelenako artxibategia erabili da. Nik ikerketarako plaza asko identifikatuta nituen, pilotaren historiaren laburpen bat ere baneukan, egituratuta. Eta bitxiena, Gipuzkoako Federazioaren sorrera nazioarteko federazioarena baino lehenagokoa dela. Hori izan da niretzako zatirik interesgarriena. Nik ezagutzen nuen historian gehiago sakondu eta murgildu naiz, eta klubak eta pertsonak aztertzen bitxikeria pila bat topatzen dituzula konturatu naiz.

Informazioa bildu duzu, koordinazio lanetan ibili zara eta ilustrazioak egin dituzu. Nolako esperientzia izan da zuretzat?

Ilustrazioak pilotako kartekin datoz. Nik aspalditik nuen ilusio bat naie kartak pilotako jokoetara moldatzea zen. Pilotaren unibertsoa ulertzeko ere balio duena. Nik horretarako egin nituen ilustrazioak, eta ilustratzaileak libururako erabili ditu. Ez dira preseski libururako egindako ilustrazioak, naiepetarako sortuak izan ziren.

Gipuzkoako herri askotako klubak agertzen dira, Gipuzkoako herri guztiek izan dute noizbait pilota klub bat?

Ez dut uste herri guztiek pilota kluba dutenik. Batzuk desagertu egin dira, eta sortzaile horietako asko jada ez daude, eta beste batzuk mantendu dira, Añorga adibidez.



Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak plazaratu du 'Botez bote 100 urte' liburua, hainbat instituzioen laguntzarekin.

Beste batzuk elkarteak dira, kirol edo kultura elkarte. Beste batzuk sortzen joan dira mendehonetan zehar. Gipuzkoako federazioa sortu aurretik elkarte batzuk sortuak zeuden, eta federazioa elkarte batzuek sortzen dute. Zubietakoa lehenago Joko Garbi elkarte zen eta orain pilota kluba da. Beraz, batzuetan ere aldaketak izan dira.

Baina, ehun urte hauetan klubak desagertu badira, sortu ere egin dira.

Zein berezitasun dituzte Usurbilgo Pagazpe Usurbil Pilota Elkarateak eta Zubietako Pilota Elkarateak?

**"EHUN URTE
HAUETAN KLUBAK
DESAGERTU
BADIRA, SORTU
ERE EGIN DIRA"**

Modalitateak. Zubietako Pilota Elkarateak joko garbi eta errebotea sustatzen ditu bereziki, eta Pagazpek esku-pilota eta pala bereziki. Niri pena ematen dit pilotatek modalitateak gutxiesten edo bereiztea. Ulerkorra da aldi berean, gazteek bat eskatzen dutelako bestea baino gehiago, eta instalazioek ere mugatzen dutelako modalitate guztiak ez jolastea.

Zubietako bezalako herriak luxu bat dira. Izan ere, plaza mantentzen dute eta frontoia badute, beraz, neguan joko garbin jokatu daiteke, esku-pilotan jolastu daiteke, palan jolastu daiteke, zestean jolastu

daiteke nahi izango balute, eta udaran jolastu daitezke plaza librean joko garbin, plaza librean eskuz nahi izango balute. Usurbilgo taldearekin talde bat osatu dezakete Euskal Herriko txapelketa jokatuzko. Ez da Hegoaldeko plaza librean Euskal Herriko txapelketan, adibidez. Hegoaldekoak ezker paretan espezializatu gara.

Iparraldean ohikoagoa da pilotarietako modalitate bat baino gehiago jorratzea neguan eta udan. Neguan xarean ibiltzen diren pilotariak, udaran joko garbin ibiltzen dira edo errebotean. Hemen (Hegoaldean) eskuzkoa eskuz bakarrik ibiltzen da eta palazkoa palan bakarrik ibiltzen da, besteak beste. Iparraldekoak ikusita inbidia pixka bat ematen dit modalitate gehiago jorratzen dituztela ikusteak. Herri batean klub bakarra egongo balitz Iparraldean bezala, espazio gehiago ere kudeatu ahal izango liriteke.

**"HEGOALDEKO
PILOTARIAK EZKER
PARETAN
ESPEZIALIZATU
DIRA"**

ARANKA
BERRIKUNTZAK
· Fatxaden estaldurak · Estalkien berriztatzeak
· Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa
· Igeltseritza orokorra
606 37 21 05 USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA
· Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
· Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867

ZENDOIA
ENEAtaberna
Kale Nagusia 35, Usurbil




2022ko urrian, Usurbil K.E.-k eta Usurbil F.T.-k elkarrekin antolatutako Garagardo Azokan eginikoa da argazkia. NOAUA

Garagardo Azoka bueltan da Usurbilen

Ohiko produktuak egoteaz gain, musika ikuskizunak eta futboleko Errege Kopako finala ere zuzenean ikusteko aukera eskainiko du Usurbil Kirol Elkartearen Garagardo Azokak. Apirilaren 16tik 19ra, ostegunetik igandera antolatu dute frontoian.

ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO Gutxienez, hirugarrenez egingo da Garagardo Azoka Usurbilen. Azkena, 2022ko urrian eginikoa, Usurbil K.E.-k eta Usurbil F.T.-k antolatu zuten elkarlanean. Oraingo honetan, ordea, 50. urteurreneko ospakizun zikloan egonik, aurren parte hartzea ezinezkoa izan zaie futbol taldekoei. Beraz, Usurbil Kirol Elkarteak izango da antolatzailea.

Duela lau urte azoka antolatu zutenean, herrian giro oso polita egon zela adierazi dio hedabide honi Usurbil K.E.-ren zuzendaritza taldeko kide Julen Nazabalek. Aurtengoan ere, "herrian giro polita" sortzeko helburuarekin egin dutela azaldu du. Gainera, iaz, mutilen senior taldeak maila igotzea lortu zuen, eta, ondorioz, aurren

ohi baino gastu gehiago izan ditu klubak. Ekimen honen bitartez ere, klubarentzat dirua bildu nahi dute. Bi arrazoi horien artean erabaki dute antolatzea Garagardo Azoka.

Laguntza beharrean

Ia dena lotua dute. Ostegun eta ostiralean, soilik afariak emango dituzte; asteburuan, berriz, bazkariak eta afariak. Duela hilabete, txandetan lan egiteko jendea behar zuela zabaldu zuten klubetik. Txanda batzuetarako beha-

"ARAZOAK DITUGU HARRIKOA EGITEKO TXANDETAN ETA JENDEA BEHARKO DUGU OSATZEKO"

rezko laguntzaileak badi-tuzte; oraindik, ordea, beste batzuetarako ez, batez ere, harrikoa egiteko txandetarako. Asteburu osoan zehar, guztira 125 pertsona beharko direla gehitu du. Herritarrek animatu ditu Garagardo Azokan lan egitera. Esteka honen bidez eman daiteke izena laguntzaile gisa: <https://labur.eus/eoy06bbz>

Funtzionamendua, 2022. urtean egindako azokaren berdina izango dela argitu du: "Tiketak saltzeko postu

"TIKETERAN, ESKUDIRUZ ZEIN TXARTELAZ ORDAINDU AHAL IZANGO DA"

bat egongo da eta tiketen bitartez funtzionatuko dugu. Bertan, eskudiruz zein txartelaz ordaindu ahal izango da". Tiket horiekin, edaria, janaria eta pitxerra erosteko aukera izango da. Garagardo Azoketan ohikoak diren ukondoak zein saltxitxak dastatu ahal izango dira, eta postre-rako sagar tarta egongo da.

Garagardoei dagokienez, bost berezi eta bi arrunt izango direla azaldu Nazabalek: "Garagardo bereziak Paulaner Munchen, Garizko Paulanerra, Guinness-a, Hope House 13 eta Murphis. Arruntak, aldiz, 18/70 eta Basurde garagardoa izango dira".

Garagardo Azoka

Apirilak 16, osteguna

Ordutegia: 18:30-00:00.

- **18:30** Azokaren irekiera, Jon Begiristainen eskutik.
- **19:00** Anuk eta Elene.

Apirilak 17, ostirala

Ordutegia: 18:00-02:00.

- **18:00** Azokaren irekiera.
- **20:00** Lua Matheus eta Rodrigo.
- **Ondoren,** DJ.

Apirilak 18, larunbata

Ordutegia: 12:00-02:00.

- **12:00** Azokaren irekiera.
- **19:00** Senior mutilen 1. nazional mailako taldearen neurketa: Usurbil K.E.-Barakaldo.
- **21:00** Realaren eta Athletic Madrilen arteko Errege Kopako finala zuzenean pantaila erraldoi bidez.
- **Ondoren,** DJ Rodrigo.

Apirilak 19, igandea

Ordutegia: 12:00-20:00.

- **12:00** Azokaren irekiera.
 - **13:30** Zozketaren sari bana-keta.
 - **16:00** Mus txapelketa (izen-ematea 15:30-16:00 artean).
 - **20:00** Azokaren itxiera.
- Antolatzailea:** Usurbil Kirol Elkarte.



Argazkian, Usurbil Futbol Taldeko ohorezko jubenil taldea. USURBIL FUTBOL TALDEA



Usurbil Futbol Taldeko 1. Mailako jubenil taldea. USURBIL FUTBOL TALDEA

"Uste dugu klubak merezi duela maila on batean egotea"

NOAUA!k herriko hainbat kiroletako taldeak ezagutze aldera, serie bat hasiko du. Lehenengo elkarrizketatuak, Aitor Vazquez eta Oier Arruti Usurbil Futbol Taldeko jubenil mailako bi taldeetako entrenatzaileak dira, eta urteko helburuez gain, denboraldia nola doan galdetu diegu.

ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO Zer moduz doa denboraldia?

Aitor Vazquez (A.V): Denboraldia espero genuena baino pixka bat okerrago doa, hala ere oraindik helburuak betetzeko aukerak dauzkagu. Baina azkeneko partidetan oso zaila jarri zaigu, batez ere guregatik, guk ez ditugulako partida onak egin. Jokalari askok ez dute bizi izan maila honek duen lehiakortasuna eta horrek esperientzia kentzen dizu partidetan. Jokalari gehienak beste maila batzuetan lehiatzen datoz eta nabaritzen zaie lehiakortasun hori, guri falta izan zaiguna. Egoera honi buelta ematea espero dugu, eta maila mantentzea, hurrengo urteetan maila honetan jolastu behar duten gainerakoentzat, uste dugulako klubak merezi duela eta maila on batean ikasteko aukera gehiago daudelako.

Oier Arruti (O.A): Denboraldi hasiera pixka bat zaila izan zen. Aurrendenboraldian genituen sententzioak ez ziren ze-

lailan islatu, galtzen hasi baitkinen. Denboraldia gaizki hasi genuen, bai sententzio aldetik baita alde animikoan ere. Taldea ez zegoen oso ondo, eta hastera pixka bat kostatu zitzaigun. Lehenengo fasean, taularen atzealdean bukatu genuen. Orain, udaberriko kopara pasara. Kopan nahiko ondo goaz, partida batzuk irabazi ditugu, eta helburua lehenengo postuan bukatzea da.

Zein da zuen aurtengo helburua?

A.V: Duela bi urte, jubenilen ohorezko ligara igo ginen beste belaunaldi batekin, eta iaz, igoera fasera sailkatu ginen. Iazko talde horretatik hamahiru goiko taldera igo dira adi-

"GURE AURTENGO HELBURUA OHOREZKO MAILA MANTENTZEN SAIAITZEA DA"

AITOR VAZQUEZ, ENTRENATZAILEA

nagatik, eta beste belaunaldi berri bat etorri da azkenean. Aurtengo helburua maila mantentzen saiatzea da. Bagenekien zaila izango zela, eta orain, mailaz jaisteko fasean gaude. Helburua, salbatzeaz gain, gehienbat gazteak ahalik eta gehien formatzea da, etorkizunean klubeko lehenengo iritsi daitezen. Azken urteetan ikusi dugu goiko taldeetara jokalaria asko iritsi direla futboleko oinarriko gauzak jakin gabe. Hori ere lantzen ari gara, baita lehiatzen ikasten ere. Goraka doazen heinean, ohi-tuago eta hobe prestatuago iritsiko dira ahalik eta talde sendoena sortzeko, beti ere

"DENBORALDIA HASI AURREKO SENTENTZIOAK EZ GENITUEN ZELAIAN ISLATU"

OIER ARRUTI, ENTRENATZAILEA

herriko jendearekin, nahiz eta jakin batzuetan zaila izaten dela.

O.A: Helburua hasieratik taldearen partida guztiak borrokatzea zen, eta taldekideen arteko errespetua eta giro ona mantentzea. Aipatu dudanez, kopara sailkatu gara, eta haren bila joateko saiakera egingo dugu, zaila izango den arren.

Ohorezko mailako jubenilak:

Futbolariak: Lizar Mugika, Aner Delgado, Ibai Azpirotz, Eneko Zabaleta, Aner Matxain, Peru Larrea, Kimetz Ramos, Juan Gabriel, Unai Zabala, Oihan Herrera, Manex Iparagirre, Adur Ayuso, Haritz Ugartemendia, Iban Olasagasti, Manex Ayerbe, Eneko Makazaga, Oihan Matxain, Jurgi Azpitarte eta Manex Indakoe-txea. **Entrenatzaile taldea:** Aitor Vazquez, 1.entrenatzaile-a; Aimar Galan, 2.entrenatzaile-a; eta Unax Gabellanes delegatua.

Jubenil 1.mailako taldea

Futbolariak: Iraitz Maritxalar, Unax Larrarte, Aratz Pellejero, Igor Garcia, Beñat Lete, Izei Agirre, Iker Irigaray, Bagh Nagi, Mikel Zuloaga, Haritz Azpitarte, Beñat Lamana, Emanuel Salet, Amets Ormazabal, Adur Soroa, Unax Urdanpilleta, Xavi Serrano, Alain Santos, Iker Pagola eta Xabat Jauregi.

Entrenatzaile taldea: Oier Arruti, 1.entrenatzaile-a; Zuhaitz Andres, 2.entrenatzaile-a; eta Ander Askorreta delegatua.



Ixaro Borda eta Ibon RG udal liburutegian arituko dira apirilaren 23an. ARGAZKIA: KULTURSHAREA.EUS

"Ibonen musikak nire testuak gozatzeko dituzte"

Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko ohitura dute udal liburutegian. Aurtengoan, Ixaro Borda izango da egun seinalatua arituko den idazlea. Ez da bakarrik etorriko. Ibon RG musikariarekin batera, *Itzalen tektonika* liburuan oinarritutako ikuskizuna eskainiko du apirilaren 23an, Sutegin.

IMANOL UBEDA

***Itzalen tektonika* (Susa, 2024) poesia liburua aurkeztuko duzu apirilaren 23an Sutegin. Ibon RG musikaria izango duzu alboan. Kantak eta poemak tartekatuko dituzuela pentsa daiteke. Nola definituko zenuke emanaldia?**

Uste dut emanaldi mistoa izan delako, nire ahotsa entzuten da eta zati batzuetan, musika bakarrik ere bai. Ibon bere sintetizadorearekin etorriko da eta beste soinu-tresna frankorekin. Giroa sortzen dakien artista da. Bakoitzak bere bizia egiten du taula gainean, ordubete horretan, une oro elkarri adi egonez haatik.

Aurretik ere aritu izan zara ohol-tza gainean Ibon RGrekin. Zer nolako ekarpena egiten dio Ibonnek zure lirikari?

Bada aspaldi oholzetan batera gabiltzala, 2019an sortu genuen Buztinezko Etorkizuna izeneko ikuskizunaz geroztik hain zuzen. Hainbat aldiz eman genuen Euskal Herrian zehar eta bistan dena, naturalki segitu dugu, hitzak eta musikak uztartzen, Mosen Bernat Etxepare, Bizenta Mogel edo Itzalen Tektonika poema bildumako olerki-irakurketa hau bezala! Ibonen musikak nire testuak gozatzeko dituzte, troxatzen dituzte eta ez dira hain umezurtz sentitzen...

Bi urte dira liburua plazaratu zenuenetik. Pozik al zaude liburua osatu duen ibilbidearekin? Bai, poesia ez da beti lehen ziztuan berean hartzen den zerbait eta gertatzen da musikaren edo irudien laguntzarekin errazkiago heltzen ga-

rela publikoaren bihotzera. *Itzalen Tektonika* ikusgarri hau Elizondoko Txokoto ostatuko Raquel Pradoren gomendioz abiatu genuen Joseba Irazokik eta biok. Gaurkoan ene olerkiek Ibon RG-rekin egiten dute beren bide puska.

Usurbilen arituko zara, Sutegin hain zuzen. Lagun asko dituzu inguruan, eta herriarekiko harremana aspalditik datorkizu. Zure kasuan, Usurbilen aritzea, etxean bezala aritzea dela esan daiteke, ezta?

"USURBILLEN ETXEAN BEZALA SENTITZEN NAIZELA AITOR DUT"

Bai hori egia da, Usurbilen etxean bezala sentitzen naizela aitor dut. Aspalditik gainera, 'Geuretik sortuak' proiektuaren baitan hiriarekiko eta herritarrekin harremana sakontzeko aukera ukan nuen, eta orain Booktegi-ren bestaren kariatara urtero etortzen naiz, Patri jatetxean afaltzeko ideia finkoarekin...

Liburuaren Nazioarteko Eguna bueltan antolatu da zuen emanaldia. Garai labainkor hauetan, inoiz baino zentzu gehiago dute halako egunak, ezta?

Egia da, halako zaurgarritasun bat nabaritzen zaiola papezko liburuari eta jakitate materialari. Alta plazer bat da, balio sentimentala baizik ez duen liburu zahar bat karrikan aurkitzea, emozio bat da, nahiz eta garai numeriko eta immaterial hauek ekar diezaguketena ez den gutxietekoa. Eta zorianak Usurbilgo udal liburutegiari, 20. urteurrenarengatik!

Liburutegiko deialdiak

Apirilak 23, osteguna

- 18:30 Liburuaren Egunean, 'Itzalen tektonika' emanaldia.

Apirilak 28, asteartea

- 18:00 'Liburu lagun, ipuina kontakizun' saioa Ixabel Agirresaroberen eskutik; haurrentzat eta beren guraso edo laguntzaileentzat. Iraupena 50 minutu.

Maiatzak 5, asteartea

- 18:00 Irakurketa-solasaldia, 9-10 urtetik gorako haur eta gaztetxoentzat: Mariasun Landaren 'Txan Fantasma'. Liburuak jada eskuragarri dituzue udal liburutegian.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Usurbilgo hiru gazte alokairuko etxe baten bila gabiltza. Etxebizitzaren inguruko edozein informazio izanez gero, eskertuko genizueke gurekin harremanetan jartzea: 688 643 044

Usurbilen edo inguruetan alokairuan gela edo etxe txiki baten bila nabil. Pertsona bakarra eta diru sarrera finkoekin. 943498917 (9:30-13:30).

25 urteko gazte bat naiz eta inguruko enpresa batean lanean nago. Logela bat alokatu nahiko nuke. 647594529

Gela edo apartamentu txiki bat alokatu nahi dut. 24 urte, Isaac. 673607486.

Alokairuan hartzeko etxe edo logela baten bila nabil. 618 773 004.

EROSI

Usurbilgo erdigunean etxe bat erosi nahiko nuke. Ahal dela bi logelakoa. 615007418

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA:IKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

GARAJEAK

SALMENTA, GARAJEAK

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadro. 685707278

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Aginaga sagardotegian asteburuetarako zerbitzari bila gabiltza: 943 37 06 68 / info@aginagahotela.com

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Andatza taberna sukaldari laguntzailer bila dabil. 627841927.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Lan bila nabil. Edozein lanetan aritzeko prest. 611 22 94 65.

Lan bila nabil. Lanerako gogotsu. 677 257 929.

Garbiketa lanak, haur zein pertsona helduen zaintza lanetan aritzeko lan bila dabilen neska bat naiz. 604302785

Garbiketa arloan edo pertsona helduak zaintzeko prest. Titulu sozio-sanitarioa daukat. 627879720.

Externa zein interna bezala lan egiteko prest. Edo garbiketa lanak egiteko. 676 282 206.

Sukaldeko laguntzailer lanetan edo pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil. 688676540

Orduka eta egunez, adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest: 747 446 091.

BESTELAKOAK

Reiki saioak eskaintzen ditut. Harremanetarako: 677086147.

Klase partikularrak emateko prest DBH 1-3 arteko nahiz LH-ko ikasleei. 628 57 28 04.

Bigarren eskuko furgoneta edo kombi baten bila gabiltza. Harremanetarako: 626419583

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	688 836 728
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Egurtzegi	943 300 563	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Emakumeen Etxea	943 377 112	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163



HILDAKOEN BERRI EMATEKO:

943 360 321 edo erredakzioa@noaua.eus

- ▶ Asteleheneko 17:00ak arte jasotakoak emango ditugu argitaratu.
- ▶ Gai nontzekoak, hurrengo asteko astekarian.

HILDAKOAK



Andoni Aizpeolea Oyabide

Apirilaren 5ean hil zen, 71 urterekin.



Dario Urrestarazu Fernández

Apirilaren 1ean hil zen, 65 urterekin.



Lidia Mallo Ramos

Martxoaren 28an hil zen, 87 urterekin.



Bittoriano Furundarena Begiristain

Apirilaren 10ean hil zen, 96 urterekin.



Carmen Toquero Calleja

Apirilaren 13an hil zen, 86 urterekin.

Pilota, etxean

Apirilak 17, ostirala, 18:00
Aginagako Ariztitxo frontoian

• Infantilak Gipuzkoako errendimenduan 3. Mailan: Pagazpe - Gazteleku

- Kadeteak Gipuzkoako 4.terdiko txapelketa 2. Mailan:
 - Pagazpe (Alejo M.)
 - Intxurre
 - Pagazpe (Alejo E.)
 - Aizkorpe

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak orrialde honetan:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitetz gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTEGUNA 16

USURBIL Arrobiltzarra

Arrobitxulo elkargunearen bilera.
17:30 Artzabalgo gazte lokalean.

USURBIL Garagardo Azoka

18:30-00:00 Frontoian.

OSTIRALA 17

USURBIL Garagardo Azoka

18:00-02:00 Frontoian.

LARUNBATA 18

USURBIL Garagardo Azoka

12:00-02:00 Frontoian.

KALEZAR "Filipa Balbina:
Klown emakumeak historian"Bea Larrañaga antzezlearen eskutik.
19:00 Emakumeen Etxean.

IGANDEA 19

USURBIL Garagardo Azoka

12:00-20:00 Frontoian.

OSTEGUNA 23

USURBIL "Itzalen Tektonika"
poesia emanaldia

18:30 Sutegei udal liburutegian.



Larunbat honetan, 19:00etan, Emakumeen Etxean.

Klown emakumeen
inguruko ikuskizuna

'Filipa Balbina' ikuskizun hibridoa da: bideo irudiak eta Bea Larrañaga beraren zuzeneko emanaldia uztartzen dituelako. "Emitza dinamikoa, entretenigarria eta informatiboa da. Barre egingo dugu, hunkituko gara, eta aurrez sekula entzun gabeko istorioak entzungo ditugu", Bea Larrañagaren web orrian irakurri dugunez.

Bea Larrañaga emakume pailazoak zenbait rol antzetzuko ditu oholtza gainean, hiru clown-arketipo baliatuta: aur-

pegi zuria, augusta eta kontra-augusta. "Arketipo horiek oso arruntak dira zirkuan, eta normalean gizonezkoek antzetzutu izan dituzte", Beak azaldu ohi duenez. Proiektzioan aldiz, idatzizko materiala, argazkiak eta bideoak erakutsiko ditu.

Apirilak 18 larunbata

- 19:00, Emakumeen Etxean.
- Gonbidapena usurbilkultura.eus web orrialdearen bidez eskuratu behar da.

Arrobitxulo elkargunearen bilera

Arrobiltzarra deitu dute ostegun honetarako, apirilaren 16rako, 17:30ean Artzabalen kokaturiko gazte lokalean. Deitzaileek jakinarazi dutenez, "Arrobitxulo elkargunearen egitasmoaren definizioan jarraitu eta hurrengo arrobiekintzak garatzeko" baliatuko dute hitzordua.

Bisita
gidatuak

Apirilak 17, ostirala

18:30-19:30 'Polen' erakusketa Sutegin. Bisita gidatua erakusketaren egilearekin.

Apirilak 19, igandea

11:00-12:15 Museo Irekia eta 'Polen' erakusketan, bisita gidatua euskaraz.

Informazioa,
erreserbak:

650usurbilbizi.eus.

Afari
solidarioa

Laugarren Kale Afari Solidarioa prestatzeko deialdia egin du Donostiako herri egitasmoarekin bat eginda dagoen Usurbilgo herritar taldeak. Apirilaren 21ean, hurrengo astearte arratsaldean Aitzaga elkartearen sukaldatu eta garraiatuko du Donostiara hurrengo otordua.

Elkartasun ekimean bertan parte hartu nahi izanez gero, telefono zenbaki honetara idatzi edo deitu: 688 85 08 24.

ARRANDEGIA
PELLO
9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATERA
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91

ZUEN PUBLIZITATEA HEMEN

943 360 321

noaua@publizitatea.eus

TXAPELDUN

ARDANGELA




PLATERAK
OGITARTEKOAK
RAZIOAK
ARROZAK
OILASKO ERREA

Muna Iurra 2, 943 49 88 83

UDAKO KIROL ETA AISIALDI JARDUERAK HAUR ZEIN HELDUENTZAT 2026

Izena emateko epea: apirilaren 16tik 27ra (biak barne)



udajolas

HH3-LH6 urte bitarteko haur eta gaztetxoei
zuzendutako euskarazko udalekua



KIROL JARDUERAK

Aretoko ikastaroak haur, gazte eta
helduentzat, uztailean

Oharrak:

- Ezingo da udalak ordutegi berdinean antolatzen dituen bi jarduera desberdinetan izena eman.
- Zerbitzuen zentzuzko erabilera bermatze aldera, haur guztien asistentzia datuak jasoko dira.

INFORMAZIO GEHIAGORAKO

Udajolas: elkartea@noaua.eus / 688 807 336 · Kiroldagiko ikastaroak: kirola@usurbil.eus / 943 37 24 98



Usurbilgo Udala

USURBILGO HAUR ESKOLA 2026-2027 MATRIKULAZIOA



0-2 URTE BITARTEKO HAUR HEZKUNTZA
2025 eta 2026 urteetan jaiotako haurrei zuzenduta

ATE IREKIAK: apirilaren 21ean, 17:30ean

Izena emateko epea: apirilaren 20tik maiatzaren 8ra

Izena emateko lekua: Udarregi ikastolan (Gernika ibilbidea 11)

Izena emateko ordutegia: 08:15-12:00

Ikasturtea hasita, haur eskolak eskaintzen duen zerbitzuaren beharra izango duzuela aurreikusten baduzue, matrikulazio garaian gurekin harremanetan jartzea eskertuko genizueke, epez kanpoko izen-emateei ezin baitiegu plaza bermatu.

Informazio gehiago: 943 36 12 16 - haurreskola@udarregi.eus



Usurbilgo Udala